01 05
GESALTZA AÑANA

Herri inguruan kokatutako diapiro baten eraginez sortu zen Gezaltza Añanako gatz ustiaketa; alegia, egitura geologiko bat. Kasu honetan, aipatutako egitura geologikoak eraginda, gatz kopuru handiak biltzen dira zorupean. Zorupeko ura material hauetatik zehar igarotzen denez, gatza bertan disolbatzen da, eta ondorioz, ura kanpoaldera itzultzen duten lau iturri nagusiek (Santa Engracia, La Hontana, El Pico eta Fuentearriba) 250 gr gatz inguru dute litro bakoitzeko. Proportzio hori itsasoko urak duen gatz kopurua baino zazpi bider handiagoa da, gutxi gorabehera (35 gr litroko).

Haran honen gatz ustiaketa, gutxienez, IX. mendean hasi zen.

Tradizioz, ur gazia edo gesala ateratzeko, ura “putzuetaraino” edo biltegi tangetaraino zuzentzen zen (zortziehun baino gehiago) eta horietatik gesala zegozkien larrainetara botatzen zen. Larrainak azalera lauak dira eta horiek, urtaro lehorrean, ur gaziaz betetzen ziren, azaletik, eguzkiak gatza lurruntzeko helburuarekin. Ondorioz, gatza erori egiten zen, eta hura biltzen eta gordetzen zen ondoren saldu eta erabiltzeko. Jabe batek zituen larrain multzoari granja zeritzon.

Haraneko azalera laua mugatua denez, mendez mende, terraza itxurako larrainak eraiki behar izan ziren. Horiek egurrezko egitura horizontal batekin eratzen ziren, zutoin bertikalen bidez eutsita (edo hein berean malda eusten zuten harrizko harresien bidez). Era horretan lortzen zen azalera lauaren gainean buztin geruza iragazgaitza zabaltzen zen, eta hura, XIX. mendetik aurrera, harri-koskorrez estaltzen zen (harri txikiak). Haren gainean lehenengo gesala uzten zen eta, azken hura lurruntzean, harri-koskorren zirrikituak itsutu egiten zituen. XX. mendean zementu geruza fin batek larrainak guztiz errematatu zituen.

Ateratako gatza larrainpean kokatutako biltegi batzuetan gordetzen zen, terrazo izenekoak. Horiek betetzeko, oro har, gatza zenbait larrainaren gainean zegoen tarte batera botatzen zen (ahoa).



Las eras de Salinas de Añada.



Ortoargazkia, Arabako guneak, hainbat urte. Eusko Jaurlaritaza / Gobierno Vasco: geoEuskadi, Arabako Foru Aldundia. Gatzagetako HE sektorea.

A. Plata jarraituz, Gesaltza Añanako gatz egituretan lau eraikuntza fase ezar daitezke:

• XVI. mendetik 1788ra. Dokumentazioaren arabera, azken urte horretan eskulan espezializatuak hartu zuen parte gatza lortzeko egituren eraikuntzan. Nabarmentzen da gatz-biltzaileen beraien esperientzia enpirikotik sortu delako, terrazak haran osotik zehar sakabanatzen ziren, era etenean, egokienak ziren lekuak aprobetxatuz. Eraikuntzan bereziki egurra erabiltzen da, baina manposteria ere erabili izan da. Guztira, 2.300 larrain izatera iritsi ziren.

• 1788-1869, urte horretan amaitu egin zen Felipe II.ak 1564. urtean ezarritako gatz monopolioa. Aro honetan, Administrazioak gatz azpiegituraren hobekuntza sustatu zuen Aurreko larrainak ordezkatu ziren, eta oraingo honetan 4.000 inguru izatera iritsi ziren.

• 1869-1920, aro honetan aurrekoan eraikitako azpiegiturak hondatu ziren eta, horrenbestez, horiek erreformatu eta hobetu behar izan ziren. Larrain kopurua handitu ahal izan zen bakarrik desegokiak ziren lekuetan, horietan, harresiak erortzen zirelako eta dena etengabe suntsitzen zelako. Aldiaren amaieran, larrain kopuruak 6.000etik gora egin zuen.

• 1930eko hamarkadatik aurrera, gatz erauzketa ezin da meategietan edo itsaso uretatik aurrera egiten denarekin lehiatu eta ondorioz, gatz jarduerak behera egin zuen eta larrainak errematatzeko zementua erabiltzen hasi zen.



Ortoargazkia 2015; geoEuskadi. Eusko Jaurlaritza. UTM 30N ETRS89 // X: 501203.0331 // Y: 4738606.1577 // Z: 573 m. Gesaltza Añana. Lurruntze larrainen hedadura atzematen da, herriko hegoaldeko sektoretik.

Errentagarritasun eskasaren eraginez, larrain gehienak utzi egin ziren, nahiz eta larrain bateren batek ekoizpena lekuko moduan mantendu.

Gatza gatz ustiaketen jabe desberdinen artean banatzeko araudi bat existitzen zen, baita lanak egiteko nolabait araututako modu bat ere.

Gaur egun egiturak atzeman daitezkeen azalera, batzuk baztertuta edo porrot eginda, gatz larrainekin lotuta, 130.000 m2 inguru dira.

Kultura izaerako jardueren, tradizioaren balioaren eta "gatzaren paisaiaren" estetika xarmaren alde gero eta gehiago egiten duen mentalitate turistikoaren aldaketaren eraginez, ustiaketa berriz suspertu egin da.

Gatzagak sustatzeko Fundazioak (bai ekoizpen, bai turismo eta bai ondare ikuspuntuaren arabera), eta horiek lehenera ekartzeko Plan Zuzendari batek 2000 larrain konpontzea eragin du (guztien %50), eta baita kanalak, bideak, tangak eta gatzagetako bestelako azpiegiturak ere.

Gehiago jakiteko: LANDA ESPARZA, M, PLATA MONTERO, A. El valle salado de Añana. Hacia su recuperación integral, Vitoria, 2007.